

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1997ko irailaren 12a

*



Ordubeteko bideoa osatu du Triper eta Zapinek Arakil-Uharteko historiari buruz.

LUIS AZANZA

Arakil-Uharte, mendizerrak eta ura

■ Zizur Nagusiko Triper eta Zapin etxeak pelikula bilakatu ditu Arakil-Uharteko historia, ohiturak eta bizimoduak. Orain dela bi aste aurkeztu zuten lana herriko plazan, eta geroztik, txurroak bezala saldu dituzte bideoaren lehenengo 200 kopiak. Gaztelaniaz egin dute, baina laster, Udalak onespina ematen badu, euskaraz plazaratuko dute *Mendizerrak eta uraren artean* izen-

buruko lana. Berau egiteko ideia orain dela lau zapabost urte bururatu zitzaion Aralar-Mendi elkarteko kide Jose Maria Ustarrozi, Artzain Egunari buruzko bideoa egiten ari zirenean. Orduko asmoa orain gauzatu da eta herri-tarrak pozik dira. Denek izan dute, gainera, bideoan parte hartzeko aukera, uhartearrak baitira, finean, filmeko eta herriko benetako protagonistak. ■

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Ez zuen asko uste Louis de Béchamel markesak egun batean Euskal Herriko udaz jabetuko zela. Askotxo zor dio ahoskera narritagarriko neska bikote bati. Mintzaira berri honen oinarria? Umeak memeloak direla uste duten gurasoena edota amodiorik eztieta konsonante bustiz beterik egon behar duelakoan dauden maitale lerdoena.

Anartean, Espainian, zezena, ilargia eta neska ihar bat nagusitu dira. Irudiak denak. Gastronomikoak, astronomikoak eta bestelakoak. Zein irudi erabili, ordea, desastre hau ilustratzeko?

Piel de toro-ko koplak oihartzunetik nahikoa urrunduak ginela iruditzen zitzaigunoi, el aldeanok beste harririk botako ez zuela uste genuenoi okertu egin zaigu irribarrea. Gaur egun doinua jarzen dutenak bertakoak dira, eta txori-

Béchamel

baten agindupean daude. Txandaka ibiltzen ziren orain dela ez hainbeste: bochero-ak eta chimbero-ak. Lehenengoek grazioso fama zuten eta horregatik izan ziren Madrilera azkarren iritsi zirenak; bigarrenak tradizionalagoak omen, baina jatorrak. Orduan magazinea, lehiaketak eta teleaioa asmatu zituzten eta aldea erabat murriztu zen. Hegoaldeko antenek erakutsi zieten bidea: saio freskoak, arinak, dibertigarriak... Euskara? Oraingoa, kalekoa, naturala. Ahotsa igotzeak eta interjekzioek biziki lagundu zieten helmugara iristen: iepa!, aupal!, itzela!, mundialal!, aire!, super!, hiper! Eta trikixia. Ugari.

Aski ongi dakit hauek inozo baten arrenkurak direla. Etsita behar nuke aspaldi, jakina baita ergelkeriak ez duela hizkuntzarik bereizten eta aise gandi-

tzen duela argiaren abiada. Hala ere ez da erraza mutu geratzea alaitasuna erakusten lehiatzen diren jarrera iraingarriaren aurrean. Milaka arrazoi daude edozein herritatik ihes egiteko. Miloika izan ditzake euskaldunak beretik urruntzeko. Uhinek, gainera, Iparralde-Hegoalde zatiketa ezabatu eta Mendebalde-Ekialde zatiketa eragin dute. Hainbeste ahaleginen ondoren paratutako errepikagailuek jasotzen duten mezuak beti gogorazten digute zein den eta non dagoen erdigunea.

Ekialde Urrun honetan nekeza izaten da lekua hartzea. Izan ere, mendebaldeak, festa apartak ditugula onartu ondoren, karaokean parte hartzeraz gonbidatzen gaitu; eta ekialdeko *cortijo* honetako jabeek jota letra baino ez dakite irakurtzen. X

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Iraizotz: Los Dinosaurios taldeak joko du gaur herrian, gauerditik aurrera. Sarrera dohainik izanen da. Igandean, berriz, Zangozako arkupeetan joko dute.

Arguedas: Yerbabuena taldeak jazz eta boleroak eramango ditu bihar herrira. Arratsaldeko 15:00etan izanen da, Foruen plazan.

Zizur Nagusia: Aska taldeak kontzertua eskainiko du gaur pilotalekuan, gauerditik aurrera.

ERAKUSKETAK

Burlata: Alejandro Zubiria Delgadoren margo erakusketa inauguratuko dute asteartean, arratsaldeko 20:00etan.

Elizondo: Sagrario Aragon, Maria Jesus Cabodevilla, Maria Victoria Mendiburu eta Lily Navaridas margolarien lana ikusgai dago Arizkunenea Kultur Etxeko aretoan, hilaren 19ra bitartean.

Lizarra: Marcel Pederencino artistaren eskulturak daude Kultur Etxean, hilaren 23ra arte.

Zangoza: herriko enkajegileen lana ikusgai dago Kultur Etxean, hilaren 18ra bitartean. Lan egunetan arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak arte dago zabalik, eta jai egunetan, berriz, 12:00etatik 14:00ak arte.

Zizur Nagusia: Jaietako kartel lehiaketako lanekin erakusketa osatu dute. Hilaren 17ra bitartean dago ikusgai, eguerditik arratsaldeko 14:00ak arte.

ANTZERKIA

Zangoza: Arbole kale antzerki konpainia herrian izanen da bihar. Txotxongilo ikuskizuna aurkeztuko du eguerdian, Galerian. Leku berean, Caleidoscopio konpainiak *Los duendes del baul* lana antzeztuko du igandean, eguerdian.

Mutiloabeiti: Els Pepsicolen taldeak *Marremango* lana aurkeztuko du igandean, arratsaldeko 19:00etan herriko plazan.

IKASTAROAK

Arbizu: Trikitixa Eskolan ikasurte berria hasiko da bihar. Ikasle berriek eguerdian egon beharko dute han, eta gainontze-koek, berriz, ohiko orduan.

Iruña: Nafarroako Antzerki Eskolak bi tailer antolatuta ditu: haurrentzako joko dramatiko lehenengoa, lau eta hamabi urte bitarteko neska-mutilei zuzendua, eta antzerki tekniken hasitapenak, bigarrena. Bi ikastaroak euskaraz eta gaztelaniaz izanen dira.

IBILALDIAK

Igantzi: VII. Mendi Bizikleta Ibilaldia ospatuko dute igandean, hilak 14, Biltoki taldeak antolatuta.

nafarkronika

Kike Diez de Ultzurrun

Opor ondoa

Uste baino lehenago buruila iritsi eta ederki harrapatu gaitu itzulerak. Denboraldi berriari gauzak zuzenduko diren itxaropenarekin heltzen diogu, nork bere alorrean, jakina, baina egia erran, benetan afera belztu egin zaie Itoizko urtegizaleei hasiera honetan. BM etxeak bertzerik manatu eta zabaldu arren, iduri du soka gero eta hurbilago dagoela urtegizaleen lepotik eta azken teinkadak den-denak *zintzilik* utziko ditu. Astia izanen da lanak geldiarazteak alderdi politikoaren joko zelaian eraginen dituen elkarren arteko ika-mikei buruz mintzatzeko, elkarri leporatuko baitiote, noski, ohi ez bezalako porrota.

Bitartean, ohikoa baino era handiagoan ari zaio isurtzen behazuna Diputazioko Presidente ozpinduari urtegiak izanen duen tamainaz oroitzen den aldi oro, lasaitasuna urratu zaion seinale. Hori gutxi ez dela, hortxe ere dago EAK zenbait alderdiri, sozialistak barne, luzatutako gonbitea datorren urteko aurrekontuetan hainbat gai adosteko UPN bazter utzirik,

beti ere. Ezin jakin, ordea, proposamen horrek loa galarazi ote dion, baina nerbioak airean behar ditu. Hala ere, sozialisten gestorearen euskarriak, oraingo behintzat, sendo dirudi, eta, bertze hameka gauzatan bezala haien esku dago EAKoen proposamenaren arrakasta. Horiek ere, sozialistek, alegia, noizbait ere txukundu beharko dute euren etxea, baina altzari zaharrak nahiz berriak izan, eraikinak badu sekulako joera eta zaletasuna eskuindarrangana lerratu eta makurtzeko.

Euskarriak euskarri, zer gerta ere, mugitzen hasi da, eta elkarbizitza baketsuaren aldeko mahaiaren bilera antolatzea bururatu zaio diputazioburu maribistakoari, alor horretako argazkian bederen denen buru agertuko delakoan. Dena den, mahaiaren zurajea urdinduxea dago. Hasiak dira xulo eta xirrikituak, eta ETAK porlana paratzen ez baldin badu, behintzat, artesituko da.

Beraz, franko poliki abiatu da opor ondoa, interesgarri. Segida, ordea, ikuskizun dago oraindik.



Nafarroako hainbat parlamentario uda aurretik izan ziren Itoizko urtegiako lanak ikusten.

asteko pertsonaiak



Miguel Sanz
Nafarroako lehendakaria

■ Nafarroako Gobernuak ez du aurrerantzean epaileek Itoizko urtegiaren eta Nafarroako ubidearen inguruan plazaratzen dituzten epaiei buruzko adierazpenik egingen. Miguel Sanz lehendakariak herenegun azaldu zenez, horren zergatia da epaien sorburua Itoizko Koordinakundearen salaketak direla, eta Koordinakundeak ez zuela salatu *solidarioen* urtegiako presako eraikuntza lanen aurkako ekintza. Kable moztea, ordea, 96ko apirilean gertatu zen, eta joan den asteazkenean arte Gobernuak epaien balorazio publikoa egiten zuen. Sanzek esan ez bazuen ere, agian uda honetan epaileek urtegiaren aldeko eman dizkieten kolpe gogorrek zerikusirik badaukate Gobernuaren erabakietan.



Fabian De Freitas
Osasunako jokalaria

■ Osasunak Sadarren 4-0 irabazi zuen asteazkenean Barakaldoren aurkako Kopa partidua, eta kanporaketa gainditu zuen. Fabian De Freitas aurrelari holandarrak sartu zituen gorraxoen lau goletatik hiru. Osasunak denboraldiko lehen hiru norgehiagoka ofizialak 1-0 galdu zituen. Horrenbestez, De Freitasek laugarren partidu ofizialean egindako hiru golak lasaigarri ezin hobeak izan ziren urduritzen hasitako osasunzaleentzat. Halaber, berez urduria den Enrique Martin Monreal Osasunako entrenatzaileak seguru asko zinez eskertuko zituen. Ea aurrerantzean De Freitasek lasaigarri gehiago ekartzen dituen. Jardunaldi bakoitzean hiru gol sartzen baditu, ez da Sadar aldean urduritasun arazo handirik izanen.

ahaztu gabe!



JAI EGUNA

Baztan-Bidasoa: Baztan-Bidasoaren Eguna da gaur. Herritarrek, ordea, ez dute Baztan edo Bidasoa aldean ospatuko, Donostian baizik. Gipuzkoako hiriburuan, hain zuzen, ekitaldi ugari izanen da goizeko 10:00etatik gaueko 21:00ak arte, Konstituzioaren plazan eta inguruko kaleetan. Arizkungo txistularien emanaldiak emanen dio hasiera Baztan-Bidasoako Eguneko egitarauari. Ondoren, goizeko 11:00etan, artisauen feria hasiko da. Denetara 35 artisauk hartuko dute parte. Talogileak ere ez dira faltako, ezta Bertizko Turismo Patzuergoko kideak ere. Gipuzkoan izanen dira patzuergoko jardueraren berri emateko. Eguerdian, Sunbillako trikitilariak izanen dira Konstituzio plazan, eta arratsaldeko 17:00etan, berriz, Berako Larrakaitz txaranga. Berako Gure Txokoa dantza taldeko kideak ere Donostian egonen dira gaur, eta 18:30etatik aurrera eskainiko dute emanaldia. Ondoren, Baztango dantzariak aterako dira plazara. Gaueko 21:00etan, azkenik, zikrojatea egingen dute Trinitate plazan, zugarramurdiarrek prestatuta.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteen-dako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketarako.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrentzako saioa 12.30etan.

Olatz Txipia

Eguesibarko Eguna ospatuko dute bihar

Goizeko 07:00etan hasiko dira ekitaldiak, eta 14:30ean herri bazkaria egingen dute

Eguesibarren Eguna ospatuko dute bihar Olatz Txipian, laugarren aldiz. Ibarra osatzen duten herri guztietako biztanleek bat egingen dute han. Eguesibarko Udalak egitarau zabala prestatu du, eta, besteak beste, herri bazkaria egingen dute. Musika eta dantza ez da faltako.

Erredakzioa / Iruñea

EGUESIBARKO herritarrek bailararen eguna ospatuko dute bihar Olatz Txipian. Herri horrekin batera, Altzuza, Ardanatz, Azpa, Badoztain, Egues Nhiriburua, Elkano, Elia, Etxalatz, Gorraitz, Ibiriku, Olatz Txipia, Sagaseta eta Sarriguren herriek osatzen dute ibarra. Guztiek bat egingen dute biharko jai egunean. Goizeko 07:00etatik goizaldeko 04:30ak arte ekitaldi ugari izango dira haur eta helduentzat.

Goizeko 07:00etan, hain zuzen ere, Badoztaingo aurorek emanen diote hasiera Eguesibarko Egunari, eta ordubete geroago dianak joko dituzte kaleetan barrena, altxaferoen hotsaren eta txistularien laguntzaz. Goizeko 09:00etan, bailarako herri guztietako kanpai hotsa izango da.

Goizeko lehen ekitaldien ondoren, 10:00ak aldera hamarretakoa egingen dute Olatz Txipian bildutako herritarrek, herriko San Sebastian plazan. Hamaiketakoa hartu ondoren, jolasean ibiltzeko aukera izanen dute txikienek, San Sebastian plazan bertan. Gaztelu puzgarria eta zezen mekanikoa jarriko dituzte haien-



Goizeko 8:00etatik aurrera kalez kale ibiliko dira txistulariak Olatz Txipian.

JAGOBA MANTEROLA

tzat, goizeko 11:00etatik, arratsaldeko 14:00ak arte, eta 16:30etatik 18:30ak arte.

Olatz Txipiko elizan ere izanen da ospakizunik bihar bailararen egunean, goizeko 11:30ean ibarreko herri guztietako parrokoek meza emanen baitute han. Oberena abesbatzaren laguntzaz. Mezan parte hartu ez ezik, ondoren, 12:30ean, kontzertua eskainiko du Oberenak San Sebastian plazan. Handik ordu erdira, berriz, bailarako dantza eta txistulari taldeek emanaldia eskaini-

ko dute, San Sebastian plazan bertan.

Arratsaldeko 13:30ean, herri kirola izanen da Eguesibarko Egunean. Sokatira eta txinga lasterketa izanen dira. Ondoren, 14:30ean, herri bazkaria egingen dute bailarako biztanle guztiek. Bazkaldu ondoren, San Sebastian plazan ekitaldi gehiago izanen dira. Arratsaldeko 16:30etatik aurrera, hain zuzen, mus txapelketa, karaoketa eta txotxongilo ikuskizuna izanen dira.

Arratsaldeko 20:00etatik

gaueko 22:30ak arte dantzaldia izanen da San Sebastian plazan, Los Vagabundos taldearekin. Bitartean, gaueko 21:00etan, afari-merendua egingen dute, eta eguneko lehiaketetako sariak banatuko dituzte irabazleen artean. Gaueko 22:30ean, berriz, dantzaldia amaitu bezain pronto zezensuzkoa aterako da. Gauerditik goizaldeko 04:30ak arte, azkenik, Los Vagabundos taldeak alaituko ditu berriro herriko bazterrak, Eguesibarko Egunari amaiera emanez. X

Izaba

Udalak monumentua jarri du almadiazainen omenez

■ Lau ataleko almadia berria jarri dute ibaian

Erredakzioa / Iruñea

IZABAKO UDALAK, almadien gainean Ezka ibaian behera ibili diren herritarrek omendu nahi izan ditu, eta, horretarako, lau ataleko almadia jarri du ibai ondoan, Landondoa izeneko eremuan. Leku hori ez dute kasualitatez aukeratu, mende honen erdira arte Landondoa baitzegoen almadiak lotzeko tokia.

Ezka ibaian almadiekin lan egin dutenen omenezko monumentua oraindik inauguratu ez badute ere Nhilaren 19an izanen da ekitaldi ofiziala, San Ciprianoren omenezko jaien egitarauaren barruan, izabarren,

eta hara hurbiltzen diren turisten jakinmina piztu du, eta jende asko hurbildu da jada almadia berria ikustera.

Joan den neguan hasi ziren egiten. Almadiako atalak eta enborrak lotzeko sokak bilatzea izan zen lehen zeregina. Soka bereziak dira, hurritz adar bihurrituekin eginak. Almadia bera osatzea izan zen hurrengo zeregina, eta, azkenik, osagarri guztiak jartzea, tartean arraunak, bi aurrean eta bat atzean. Izabako almadiazain zaharrek egin dute lan guztia. Aurrerantzean, Landondoa egonen da ikusgai, hainbat mendetan herritarren lanbide arriskutsua izan dena gogora ekarriz. X

Garralda

Azoka Transhumantea etzi ailegatuko da herrira

■ Artzainen bizimodua ekarri nahi dute gogora

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Artisautzako Elikagaien Elkartaren eta Pirinioetako Patzuergoaren eskuetik, Azoka Transhumantea egingen dute igandean, goizeko 11:00etan hasi eta gaueko 21:00ak arte. Egun osoan herriko eta beste hainbat lekutako artisauen produktuak ikusgai izanen dira Garraldako karriketan. Besteak beste, gazta, ezti, pastak, sagardoa eta kafea izanen dira dastatzeko eta saltzeko, bai eta zurez, oihalez, larruz edo burdinaz egindako hamaika gauza ere. Artisau guztiak artzainen moduan jantzi egongo dira,

artzainen bizimodua ekarri nahi baitute gogora.

Artisauen azoka ez ezik, kaleak alaitzeko antzerki taldea ere ibiliko da herrian, artzainen eta ardidibideen historia eta ohiturekin zerikusi duten antzeppenak eginez. Ardidibe eta artzainen historiaren berri jasotzeko, Nicolas Ardanaz eta Jagoba Manteola argazkilarien lanak biltzen dituen erakusketa ere zabalik egonen da. Argazkiekin batera, gainera, artzantzari buruzko testu historikoak bildu dituzte antolatzaileek: XVI. mendeko ardidibidei buruzko agiriak, soro eta abereei buruzko epailetak, Nafarroako Erresumako artzantzari buruzko legeak, eta abar. X

Zizur Txikia

Josetxo Goia-Aribek eta Pello Ramirezek herrian joko dute bihar

■ «Bide baterako musika» ikuskizuna aurkeztuko dute

Erredakzioa / Iruñea

MUSICA para un camino (Bide baterako musika) izenburua-rekin, Pello Ramirez Intxausti eta Josetxo Goia-Arribek musikarien ikuskizuna Zizur Txikira ailegatuko da bihar, atzo Iruñean egon ondoren. Igandean, berriz, Luzaiden eskainiko dute kontzertua. Bi musikariek biolontxeloaren Pello Ramirez eta saxoaren Josetxo Goia-Arribek doinuak bildu dituzte, Luzaidetik Bianara Frantses bideari eskaintzeko. Josetxo Goia-Arribek konposatutako hamahiru pieza hartu dituzte herriz herri aurkezten ari diren ikuskizuna osatzeko, Goia-Arriben beraren zuzendaritzapean. Josetxo Goia-Arribek, hain zuzen, aspalditik zuen biolontxeloaren eta saxoaren doinuak elkartzeko gogo, eta Iruñeko hainbat olerkarik egindako eskariak eman zion horretarako aukera. Pello Ramirezekin batera hiru pieza konposatu zituen, eta hori izan zen egunotan Nafarroako herrietan barrena aurkezten ari diren programaren hasiera. *Neguko solstizioa, M.A.U.T., Eunete, Otoi-tza, Ipurdi-dantza, Jostetan eta Auresko dira* berau osatzen duten obretako batzuk. Zizur Txikian, bihar arratsaldeko 20:30ean hasiko da Pello Ramirez eta Josetxo Goia-Arriben kontzertua. Sanjuandarren egotzian izanen da. Luzaiden, berriz, igandean izanen dute bi musikarion emanaldia entzuteko aukera bertako biztanleek, herriko parrokiaren, eguerditik aurrera. Luzaidetako, dena den, ez da bi musikariek *Bide baterako musika* izenburupean eskainiko duten azken kontzertua, urriaren 3a bitartean Nafarroako beste hainbat herritan ere izanen baitira. Hilaren 20an, hain zuzen, Urantzian izanen dira. Santa Maria elizan eskainiko dute kontzertua, gaueko 21:00etatik aurrera. Biharamunean Garesera ailegatuko dira, eta arratsaldeko 13:00etan joko dute Santiago elizan. Egun berean, baina arratsaldean, Iruñeko monasterioan izanen dira Ramirez eta Goia-Arribek. 19:30etatik aurrera eskainiko dute kontzertua. Hilaren 28an, halaber, Vianako Santa Maria elizan joko dute musikari nafarrek, arratsaldeko 13:30etatik aurrera. Urriaren 3an, azkenik, Zangozan izanen dira, San Salvador elizan. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da kontzertu hori. X

Arakil-Uharteko historiari
buruzko bideoa

Herriaren testigantza

Arakil-Uharteko ohituren eta bizimoduaren berri jasotzen duen bideoa plazaratu du Udalak

Edurne Elizondo / Arakil-Uharte

TRIPER ETA ZAPIN etxeko kideen eta uhartearren artean egindako lana da Arakil-Uharteri buruzko bideoa. Lana egiteko aukera edo ideia orain dela lauzpabost urte sortu zen, Artzain Egundaren baten inguruan, baina orain gauzatu da. Martxoan Udalaren onospena lortu, eta ekainean hasi ziren Triper eta Zapinekoak Arakil-Uharteko bazterrak pelikula bihurtzen.

Ordubeteko bideoa osatu dute 20tik gora ordu grabatu ondoren. Dario Vento Txertoa izan da zuzendaria, bai eta gidaria ere Patxi Labordarekin batera. Biek, Jose Maria Satrustegi historialari eta ikertzaile arruazuarra izan dute lan horretan aholkulari eta gidari, Patxi Biskert, berriz, ikuslea Arakil-Uharteko txokoetan barrena eramaten duen gidari-aktorea da, Patxi Biskerten papeira eginez. Trenez iristen da egundaren batean herrira, eta han egonen da hurrengo 72 orduetan. Tarte horretan, herriko historiaren zertzeladak eskaintzen dizkio ikusleari, historiaurretik hasita gaur egunera arte. Baina Patxi Biskert ez da filmeko protagonista bakarra, harekin batera herri osoa bilakatu baita aktore, Udalak artxiboetatik atera duen Arakil-Uharteren historiari buruzko pelikulan.

«Pelikula arina egin nahi genuen, entretenigarria, argigarria», azaldu digu bideo etxeko kide Dimas Lasterrak. Arakil-Uharteko historiari buruzko bideoa osatzea ez da oso zaila izan Lasterrarentzat, jaioterri baitu mendizerren eta uraren arteko herria. Uhartearra oso kontent dago egindako lanarekin, eta hasierako helburua betetzea lortu dutela uste du: «Herriko historia ahaztu dutenen edo ezagutzen ez dutenen jakinmina piztu, haientzat leiho bat zabaldu, Arakil-Uharteko historia arakatzeko jarrai dezaten».

Ekainean hasitako lanaren emaitza orain dela bi aste inguru aurkeztu zuten herritarren aurrean, eta oso harrera ona egin zioten denek. Lehenengo bideoak Artzain Egundean jarri zituzten salgai, eta geroztik, laster saldu dira egindako lehenengo 200 kopiak. Bideo etxekoek berehala plazaratuko dituzte gehiago, bai eta euskaraz ere laster, Dimas Lasterrak azaldu legez. «Udalaren erabakiaren zain gaude», esan digu.

XIV. mendeko herria • 900 biztanleko herria da Arakil-Uharte; herri txikia, beraz. Haren historia, ordea, zabala eta aberatsa. Dimas Lasterrak argi esaten du: «Gaur 900 biztanleko herria den hau oso gune garrantzitsua izan zen garai batean, ekonomia eta defentsari dagokionez, besteak

Arakil-Uharteko Udalak, herriko historia, ohiturak eta bizimodua jasotzen dituen bideoa plazaratu berri du. Zizur Nagusiko Triper eta Zapin etxeak ekoiztu du, Dario Vento Txertoaren zuzendaritzapean. Bideoa egiteko ideia orain dela urte batzuk sortu zen, etxe bereko Dimas Lasterra uhartearra Artzain Egundari buruzko lana grabatzen ari zenean. Udalak proiektua onartu eta aurrera atera da. 200 kopia jarri zituzten orain dela bi aste salgai, 2.500 pezetan, baina laster aterako dituzte gehiago, herritarrek oso harrera ona egin baitiote *Entre las sierras y el agua* (Mendizerren eta uraren artean) izenburuko lanari.



Uhartearrek oso harrera ona egin diote herriari buruzko bideoari.

LUIS AZANZA

beste». Iritzi berekoa da Jose Maria Satrustegi, Arruazuko ikertzaile eta euskaltzaina: «Kultura guztien bidegurutze izan zen, Sakana guztia bezala». Azken urteetan herriak izan duen aurrerapen handia ezin du ahaztu Satrustegik «industriaren alorrean, batez ere», baina Arakil-Uharteren historia gogora ekarriz, XIV. mende-

Joxe Maria Satrustegi:
«Gaur egun jendeak begiz hartzen du dena, ikusiz, irakurriz baino gehiago. Bideoa gure kulturaz jabetzeko modu bat da»

an kokatzen du unerik garrantzitsua.

Izan ere, XIV. mendean du sorrera Arakil-Uhartek. «XIV. mendea baino lehen, bederatzi herri txiki baziren inguruan. XIII. mendearen hasieran, ordea, Gipuzkoak Nafarroari bizkar eman eta Gaztelarekin joan zen, eta Gaztelako agintariak iritsi ziren. Hemengo bizitza oso gogo-

rra zen, gizakien muga deitzen zioten. Erregea konturatu zen, orduan, herri txiki horiek ez zirela gai beren burua zaintzeko, eta denak bildu zituen toki batean, harresiek inguratutik. Arakil-Uharteren sorrera izan zen hura, 1350. urtean», azaldu digu Satrustegik, bideoan egiten duen moduan.

Garai hartako biztanleek, hala ere, Arakil-Uharte sortu berria baino, nahiago zituzten lurak ziren herri txikiak. Harresiez inguratutako herrira neguan joan, eta udaberrian utzi zuten, herriketara itzultzeko. Erregearen ordezkari Luis Utinek, orduan, herri txiki guztiak desagertarazi eta Arakil-Uhartera itzultzea behartu zituen herritarrek. «Elkartzen ez baiziren, finean, ez zuten etorkizunik», azpimarratzen du Satrustegik. «Hori izan da herriko historian unerik garrantzitsua, muina», gaineratu du.

Historiaren une hori, halaber, Arakil-Uharteri buruzko bideoaren abiapuntua da. 60 minututan, gainera, beste mota askotako gaiak jorratu dituzte egileek: Urbasa, Andia eta Aralarko mendizerrak «herria baldintzatzen dutenak», historiaurreko aztarnak «hain ugariak herrian», herriko kale eta pertsonaiak «San Migel da kalerik zaharrena», San Migeleko santutegia «eta hara ailegatu aurretik bidean diren San Migelen bi gurutzak», 1850. urtean desagertu zen herriko harresia «arku bakarra gelditzen da gaur egun, herriaren azpian ezkutatuta», auzolana «18 eta 25 urte bitarteko lagunak bi egin behar dituzte», erromeriak eta abar luze bat.

San Migeleko santutegiari dagokionez, hango apaiz Inozentzio Aierbe agertzen da bideoan azalpenak ematen. Zehazki, santutegiaren sorrera azaltzen duen kondaira kontatzen du Aierbek, Teodosio Gofikoarena, alegia. «Gudutik etxera itzuli zenean, deabrua agertu zitzaion ermitau arropak jantzita, eta emaztea ez zela harekin leiala izan esan zion. Etxera ailegatu eta bi pertsona ikusi zituen ohean, eta emaztea eta amorantea zirela ustez, hil egin zituen. Gurasoak ziren, ordea. Aita Santuari dena kontatu eta penitentzia jarri zion: kateak eraman beharko zituen zintzilik gerritik eta hanketatik. Behin mendian zegoela, herensuge bat agertu zitzaion, eta San Migel deitu zuen Gofiko Toedosiok. San Migel agertu eta herensugea hil zuen, eta Teodosioren kateak desagertu ziren. Santutegia dagoen lekuan eliza eraikitzeko agindu zuen orduan».

Herritarren partehartze garrantzitsua • Satrustegi eta Aierbe ez dira izan Arakil-Uharteko bideoan parte hartu duten

Arakil-Uharteko historiari buruzko bideoa

bakarrak, herritar asko jarri baita kamera aurrean: herriko dantzataldea, parrokiako abesbatza, Felipe Gorriti herriko musikari eta konposatzailearen biloba, bai eta beste herritar asko eta asko ere. Bideoaren azken zatia, hain zuzen ere, herritar horien hitzei eskaini diete egileek, eta herritarrok Arakil-Uharteko mende honetako historia gogora ekartzeko aprobetxatu dute. Ahalegin hori «bihotzez eskertu» diete egileek herritarrei.

Eta mende honetako historian, pisu berezia du 60ko hamarkadan herrian gertatu industrializazioak. Jose Maria Satrustegik aipatu digunez, «bizimodua eman dio Arakil-Uharteri industriari». Eta ez da iritzi hori duen bakarra. Bideoan, adibidez, hau esaten du uhartere batek, industrializazioari buruz galdetzean: «Fabrikarik gabe, 200 biztanle ere ez ziren izanen Arakil-Uhartean».

Bideoaren azken zatiko protagonista diren herritarrek, Espainiako gerra zibilaren ondorengo garaia ere badute mintzagai. «Tristura eta gogortasuna» bezalako hitzak erabiltzen dituzte denek gai horretaz hitz egitean. Dimas Lasterra egileak berak gogoan ditu aiton-amonek kontatutako pasadizoak. «Oso garai gogorra izan zen», aipatzen du. Bideoan jasota dagoen uhartere baten lekukotasunak argi uzten du hala izan zela: «Garia ezkutu behar genuen, ez kentzeko. Errota bazegoen baina itxi zuten, Estatuak bakarrik baitzuen erabiltzeko eskubidea. Etxean garia bai, baina ogirik ez».

Joxe Maria Satrustegi:
«Bizimodua eman dio Arakil-Uharteri industriari. Fabrikarik gabe, 200 biztanle ere ez ziren izanen herrian»

Gerraren ondorengo garaia ez da Arakil-Uharteko herriak pairatu behar izan duen garai txar bakarra izan. Suteen ondorioz, hamaika aldiz kiskali eta berregin behar izan dituzte herriko etxeak. Historian zehar, zehazki, hamabost sute izan dira Arakil-Uhartean. Horieta bat 1961. urteko udan gertatu zen, bideoak gogora ekarri duen legez. Orduan, herriko 26 etxe erre ziren. «Ikaragarria izan zen, dena zegoen sutan», aipatzen dute uhartereak.

Baina gaur egungo Arakil-Uharteren irudia da bideoak jasotzen duen azkena, «900 biztanle dituen herri txiki, polit, lasai eta langilea». Eta Udalak kaleratu bideoak herri txiki eta polit hori ezagutzeko aukera eskaintzen die herritar zein kanpotarrei. Jose Maria Satrustegiren ustez, hain zuzen, «aurrerapen handia da bideoa, ez baita orain batera idazten herrietan, are gutxiago euskaraz. Eta jendea kultura eman behar zaio.




Ordubeteko bideoa osatu dute Arakil-Uharteri buruz. Eskuineko argazkian, Dimas Lasterra, bideoaren egileetako bat. LUIS AZANZA*



Gaur Arakil-Uhartek egin du herriaren historiari buruzko bideoa, baina bihar beste batek egin dezake, eta hori oso positiboa da, askotan beste herrietako

historia gure herrikoa baino hobekigo ezagutzen baitugu». Bideoaren formatua, halaber, egokia iruditzen zaio historialari arruazuarrari, «gaur egun jende-



ak begiz hartzen baitu dena, ikusiz, irakurriz baino gehiago. Gure kulturaz jabetzeko modu bat da». Triper eta Zapin etxearen

asmoa, hain zuzen ere, Satrustegik aipatu aukeran lantzea da, hau da, Arakil-Uhartean egindakoa Nafarroako beste hainbat herritara zabaltzea.

Artzain Egunaren baitan sortutako bideoa

ARAKIL-UHARTEKO bizitzan bezala, leku berezia izan du Aralar-Mendi elkarteak herriko historiari buruzko bideoan ere. Finean, herriko erreferentzia nagusietako bat da elkarte herriko. Gaur egun 300 bazkide ditu, pilota eskola bat, futbol talde bat, igerilekua eta egoitza. Hala eta guztiz ere, urtero abuztuaren azken aldian Arakil-Uhartean ospatzen den Artzain Eguna antolatzen duela da ezaguna Aralar-Mendi, batez ere.

Urtero, milaka lagun biltzen ditu Artzain Egunak herrian. Txakurrak, artzainak, ardiak, artisauek eta gaztagileak

dira egun horretan benetako protagonista. Azkenekoz, joan den abuztuaren 31n ospatu zuten artzainen festa handia Arakil-Uhartean, eta beti bezala jende andana bildu zen han Aralar-Mendi elkartearen deia erantzunez.

Arakil-Uharteri buruzko bideoak berak Artzain Egun batean izan zuen hasiera, orain dela urte batzuk, Jose Maria Ustarroz Aralar-Mendi Elkartearen eskutik. «Azken urteetan, Artzain Eguneko ekitaldiak bideoan jaso ditugu. Hortik abiatuta, zerbait zabalgona egiteko aukera bururatu zitzaidan, Arakil-

Uharteko historiari buruz, ondare historikoa-ri buruz eta abar. Udaleko arduradunekin hitz egin genuen eta horrela jarri zen abian proiektua», azaldu digu Ustarrozek. Artzain Egunari buruzko bideoak egin dituen etxe berak egin du herriari buruzkoa ere, Triper eta Zapinek, hain zuzen.

Bideoaren bultzatzaileetako bat izateaz gain, grabaketan ere parte hartu du Jose Maria Ustarrozek. Uhartearrarentzat, hain zuzen, hori da bideoaren alderdirik garrantzitsuenetako bat: herritarren parte hartzea, alegia. «Herriari buruz dakiguna

baina ahaztuta genuena herriko jendearen ahotan berriro entzutea oso pozgarria da», nabarmendu du.

Mendizerren eta uraren artean izenburuko bideoan, gehien maite duenari buruz hitz egiteko aukera izan du Ustarrozek: historiarreari buruz. Historiarrearen utzitako monumentuak, hain zuzen, herritar guztientzat ezagunak dira, eta horietako batzuk erakusten agertu da Aralar-Mendikoa bideoan.

Izan ere, horiek guztiak ezagutzera ematea, herriko ondare kultural eta historikoaren berri ematea, funtsezkoa da

Jose Maria Ustarrozen ustez, eta bideoa izan daiteke haren irudiko hori lortzeko bide egokiena. Hala ere, oraindik egiteko asko dagoela azpimarratzen du: «Gehiago aprobetxatu behar dugu hemen daukaguna: San Migel, mendiak, monumentu megalitikoak, natura, dena». Bideoak laster konponetzea espero duen huts bat badu, gainera, uharterearen ustez: euskararena, alegia. «Euskara falta da, baina agertuko da», dio Ustarrozek. Bukatzeko, bi hitzetan definitzen du uhartereak jaioterria: «Polita eta lasaia». X

Xanti Begiristain

Hobe oker banengo

■ Denon jakina da dagoeneko ikasturte berria hasita dagoela jende askorentzat, adibidez, Lehen Hezkuntzako haurrentzat, politikarientzat, langile arrunt askorentzat, komunikabideentzat eta abar, besteak beste.

Euskal Herriko komunikabideei dagoeneko, niri bereziki euskaldunak interesatzen zaizkit, hau da, euskaraz aritzen direnak. Horien artean irratiak, telebistak, egunkariak eta aldizkariak aipa nitzake gutxienez, baina gaurko artikuluan mugatu nahi dut neure burua ETB1eko esparruan, eta berari buruz zenbait gogoeta eta kritika egin.

Esan bezala, ETB1ean bukatu da udako programazioa, eta pixkanaka-pixkanaka hasi dira ematen ikasturte berrikoa. Espero dezagun berarekin batera bukatuko direla neurri handi batean, behinik behin, udako errepikapen *ospetsu*, astun eta gogaikarriak.

ETBko jaun-andere arduradunei ez zaiela aurpegia gehiegi gorritzen.

Baina beno, aurreko *kalamidade* guztiak alde batera utzita, ikusi egin behar nolakoa den aurtengo programazio berria, konparaziora, *Benta Berri*, *Bertatik Bertara*, *Zine Oro*, *Goenkale*, *Hitzetik Hortzera*, *Lazkao Txiki*, *Fernando Amezketarra* eta abar.

Dena den, programazio horretan neronek bi hutsune nabarmen topatzen ditut, alegia, filme eskasia eta eztabaida saio murrizkeria. Konparazioak egitea desgokia dela esaten da, badakit, baina ia-ia esanen nuke hemen ez didatela beste aterabiderik ematen, hara, ETB2an egunero ematen dituzte hiruzpalau pelikula. Batzuk izango dira eskasak, txarra edota oso txarrak, baina beste batzuk, aldiz, balekoak, onak, arrunt onak eta bikainak, baina aukera, behintzat, aitortu behar da hagitz handia dela. ETB1ean, orain arte



Benta Berri telesailako aktoreetako batzuk.

Inorentzat ez da isilpekoa argitaratzea izanen hemen esaten badut telebista publiko horrek eman dituela uda osoan zehar hamahiruren bat programa errepikatuta egunero.

Erraz esaten da, ez da hala? Eta nire ustez, halaber, horixe bai dela, era berean, telebista egiteko modu eroso eta merkea! Adibide soil eta bakarra baino ez jartzearen, gogora ezazu *Jaiak 97*, esate baterako, hiru aldiz errepikatutik jartzen zutela egunean barrena, eta artikulutxo hau idatzi dudanean egunean bertan, ikusi dut aipatu programa horretan botatzen ari zirela beste batzuen artean Iruñeko, Gasteizko, Bilboko eta beste leku batzuetako jaiak. Pentša ezazu jai horiek zer-nolako interesa izan dezaketean gaur egun, beren garaian hainbeste aldiz errepikatu ondoren, baina hala eta guztiz ere, argi dago

behinik behin, botatzen dituzte bi filme gehienez asteko, eta horiek ere askotan bizpahiru aldiz errepikatuta, eta kalitate eskas samarrekoak.

Eta bigarrenari dagokionez ere, nabarmena da ETB2an programa askotxo eta luzesak egiten dituztela iritziak plazaratzeko, eztabaidak sortzeko solasaldiak eta mahai-inguruak aurrera eramateko eta abar.

Beste telebista guztietan, eta bereziki ETBko erdal katean, ikusleek eskubidea baldin badute mota horretako saioak ikus-entzuteko, ezin dut ulertu zergatik ETB1ek murrizten digun horrenbeste aipaturikoi eskubidea. Azalduko balidate ere, ez dut uste jokabide hori bidezkoa izanen litzatekeenik. Hasieran esan bezala, hobe oker banengo, baina beldur naiz arrazoi izanen ote dudana. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Gurbindo zenaz mintzagai

■ *Txitxo bat aldarriz: Tira ba adixkideok / Goazen eskolara / Bizitzan bear deguna / Gogoz ikastera. Antton Txintxo: Ikaxketari itzela / Mutlko au degu / Jaurtin orduko oyua / Baida bidea artu. Patxi Alper Aundi: Au damue! Gaizo onek / Eskola bear ere... / Jo...bar! Zer datozkiton / Ematera neke. Ama xuhurbera: Liburu ta ilasarik / Irakas ikasi / Ainbeste gastuk eta / Sarritan buruautsi / Ikus ahalko degu / Legez dirutuki? / Ori gertatzeaz denik / Etsiya ez nago ni. Txixó bat kontugilez: Ikasleak ordeaz / Berea badauki? / Ez naiz menturatzen / Erratera baike. Ez da hasmenta txarra gaurkoan ekarri duguna, ikasleak oro eskolei harzara ekitear diren iraila goxo honetan — irailak oro goxo baititut edonola gerta ere—. *Euzko Gogoa* aldizkarian argitara emaniko *Eskola oroit-omenal* batez: *txixokunde*a deitura daraman olerki honen gaiak ez gaitu sobera harritzen, behar, alta badakigulako, jakin ere, Nafarroako haurrei zuzentzaile aritu zela euskarazko azterketetan, laketaren laket, hil hurren zegoela ere bai, Etxalarren 1962.eko urriaren 10eaniko saioak frogatzen duenez, bada, soilik bederatzi egun beranduxeago zendu baitzitzaigun bere Iruñeko etxean.*

Jose Agerre Santesteban, Axularren abizenkide hauta, Euskal Herriko hiriburuan 1889.eko abenduaren 29an sortu zen. Apez-bidea harturik, Belosogaraino apezteixean sartu zen, baina asmo zerutiarrak hutsaletan geraturik, orbanduon mendera itzuli zitzaigun. Geroantzean Bordele eta Sevilla aldean ibili zen, bigarren horretan, nekazaritzako tresnen enpresa bateko salmentetarako buru gisa. Espainako hirian ere arma denda baten zabaldu zuen beste norbaitekin batera, baina, 36.eko gerratearen aurreko garai nahasiak Iruñera arras-ekarri zigun. 1932.ean La Voz de Navarra eguneroko abertzalearen azken zuzendari ihardun zigun. 1923.eko martxoan sortu eta 36.eko uztailaren 18an berean Falange itxi eta ohostu zuen berbera. 1934.ean ere EAJ-ren Nafarroako Buru Batzarreko lehendakari izendatu zuten. Curriculum honekin, oraino ezin izan dugu azaldu nola iraun zezakeen Iruñe faxista hartan zehinahi ezpuenda ahantzian ehorik ageri gabe, hagitzez ere hobe izan zaiguna, bestenez.

Jakintza zabaleko gizona, poliglota aparta genuen. Euskaraz gainera, apezgaitegian ikasitako latina eta grekera ere bazekizkien, baita naroki zerabilzkiezen espainera, frantsesa, ingelera, alemaniera eta itallera ere. Euskararen Adiskideak-eko taldekide zein taldeburua, abantxu Euskaltzaindiaren sorreratik euskaltzain osoa izan zen, 1919.eko irailaren 21eko bigarren labeka hartan izendatu baitzuten, baina urtea higatu barik, des-kaderatu zuten bileretara ez joateagatik, bereziki ez ahantzi denbora hartan Sevillan zatekeela, eta horregatik, normaltzat jo beharko dugu 1934.ean urgazle gisa berriz ere sartu izana.

Goren graduako idazlea genuen Agerre, hitz lauz zein olerkigintzan, eta orduko argitalpen ugari altzoratut zituen bere idazkiak: *Amalur*, *Egan*, *Euzkadi*, *Euzkerea*, *Euzko Gogoa*, *Gure Herria*, *Kamel*, *Napartarra*, *Olerki*, *Pregün*, *Principe de Viana*, *Vida Vasca*. Agerrearen prosa zertan genuenez jabetzeko hona hemen *Egan* aldizkarian agertu *Jentillen emakumeak* kontraeraren lagin laburra: *Jentillak, aundi ta goi, giñarre gozoko, larru gorri guriak, biloa ere bai sugorri edo artagorri, sarritan, begiyak urdin, sudurra makur, azkar ta zankarru, sorbaldak zabal, burua kizkur ta bekokiya, agerre. Ola ziren Aralargoitiko jendiak. Ikusagun orain Aralarbeitikoak: beltzaranak ziren edo morixkak, soina motzago, txitzez estuxe, aurpegia bildu, sudurra txorrotx, betaldiya, zauli, ikatz-disdratsu ta sarkor, aitzo-gizas; enborra, laukun, oreinak, bezin erne, laxterkari, soma bizi ta zail. Edozelan ere, olerkia mailan nabarmendu zitzaigun, gehienetan ere *Gurbindo* ezizenaren azpian. Apat Etxebarnek, Irigarai Txipik hots, *estilo conciso y simbolista con tendencia al modernismo* hitzekin definitu zuen Agerrek ondu olerkia. Lagun mina zuen Onaindiak, Gurbindok sinatu eta argitalpen ugari sakabanatu lan guztien bilketari eta ondorengo argitarapenari ezinbestekoa zeritzon: *ortan ibilli nintzan, Agerre it ta ba-batera, baiña ez nuen bear aihako laguntzarik izan*, alabaina, lan errex honek egiteke dirau, eta, desiratzan ez badugu ere, luzaroan horrela segiko duela aurreikusten dugu behinik behin, sine qua non diren bi baldintzetako bakarra bete ez baitzuen, hau da, nafarra izatekotan erderaz idaztea, eta, euskaraz idaztekoan vascongadetakoa izatea —beste modu batetan esanda, eta Jon Alonsok noiz edo noiz proposatutakoari jarraikiz, salaketa honek ez du ondortorik izanen, Nafarkaria erderaz edota Vascongadetan ere banatuko ez den bitartean.*

Hutsune hau alde edo moldez betetze nahian, eta Agerrearen prosarekin egin antzera, hona hemen Gurbindoren olerkigintzaren lagina, eskax izanagatik ere, nahikoa adierazgarria datekeena. 1950.eko *Euzko Gogoa* literatur aldizkarian *Orixeri goraintzi, egor eta agur* agertarazi zuen, gutiz gehien Nafarroaz ihardoki bederatzi puntuko hamairu bertso: III. *Jon Bilbao dela bide / Nai dituz egorri / Puntoko ok erranez / Irriz ta larri / Emen agiturikan / Denez oargarri / Funts guti deramate / Mamirik xuhurri / Eskas jakinduri / Ahal duzu igarri / Nabar erriari / Zer zaien etorri / Legea zenez geroz / Emen erori; IV. *Otsa dabil, Orixe / Adixkide maite / Euskaldunak olesa / Den eskuterre / Aiginu izanen ola! / Onen urte gabe / Kalakok bein eta bein / Etsian gauzkitte / Geranori gale / Zuriki bai ele / Jaten eman orde / Itza jana dute / Milagroa bear litzake / Eusteko fede. ■**

Gogoa bai, dirurik ez

Etxetik alde egin nahi badute ere, Nafarroako hamar gaztetik zortzi gurasoekin bizi dira, gogoz kontra

A. Unanue / Iru'ea

ASPALDITIK idatzita dago mundu honetan gezurrak, gezur handiak eta estatistikak daudela; alegia, inkestek ez dutela inoiz errealitate bere osotasunean, behar adinako ñabardurekin islatzen.

Fondo Formacion-eko ardura-dunek bazuten halako erreparorik, baina, hala ere, inkestak bideetik jo zuten Nafarroako gazteen profila taxutzeko eskatu zieten.

Hala, uztailen eta abuztuaren 16-30 urteko 800 lagun inguru elkarrizketatu zituzten, nola bizi diren eta zer-nolako kezkek, arazok eta ohiturak dituzten jakiteko. *Nafarroako gazteria 2000. urtearen atarian* lanaren emaitzak joan zen astean aurkeztu zituzten Fondo Formacioneko kideek, eta nafar gazteek erakundeez, bizimoduaz, harremanetaz eta beste hainbat kontutaz duten iritzia agertu dute. Errealitatearen isla nahi bezain erreal ez da izango ziurrenik, baina datuak hor daude.

Emaitzak ikusita, bistan da gurasoen kezka dagoeneko ez dela seme-alabek ustekabeen etxetik alde egin eta bakarrik utziko dituztela. Aitzitik, etxetik noiz demontre joango diren galdetzen hasiak dira asko.

Nafarroan, hamar gaztetik bi baino ez dira bizi beren kasa: % 11,5 bikotearekin eta % 7 lagunekin edo bakarrik. Gainontzekoak, hamarretik zortzi, gurasoekin bizi dira oraindik. Gurasoekin bizi direnen artean, lautik hiruk etxetik alde egin nahiko lukete, baina ez dira ausartzen. Oraindik gurasoekin zergatik bizi diren galderari, lanik edota dirurik ez daukatelako erantzuten diote gehienek. Etxetik alde egiteko gogoa izateak ez du esan nahi gurasoekin gaizki moldatzen direnik. Gazte gehienek nahikoa harreman onak dituzte gurasoekin, batez ere amarekin.

Gazte gehienak ikasten ari edo langabezia daude. Bostetik batek izena emana du INEMen bulegoetan, eta % 36 lanean ari dira. Aldi baterako lantxoak dituztenak zenbatuz gero, portzentaia dezente igotzen da, % 53raino.

Langileen artean, hirutik bat kontraturik gabe ari da. Zertan dihardute? Gehienek, lautik hiruk, zerbitzuetan, kualifikazio handirik eskatzen ez duten zereginetan.

Gazte askok ez dute berezko diru iturririk, eta diru sarrerak dituztenen artean gutxi jasotzen dute 100.000 pezeta baino gehiago. Lau gaztetik batek 100.000 eta 150.000 pezeta bitarteko diru sarrerak ditu, eta inor gutxi irabazten du hilean 150.000 pezetatik gora.


Arazoak eta jarrera politikoa

Nafarroako gazteentzat langabezia, etxebizitza eta diru eskasia dira arazo nagusiak.

Indarkeria, berriz, oso gutxi ikusten dute hurbileko arazo bezala. Gehienek ez dute aipatu

Nafarroan hamar gaztetik zortzi gurasoekin bizi dira, ez ordea hala nahi dutelako. Lautik hiruk etxetik alde egin nahi badute ere, ez dira ausartzen, ez dutelako ez lanpostu finkorik ezta bestelako diru sarrerarik ere. Hala dio Fondo Formacion erakundeak amaitu berri duen inkestan.

JOXEAN APEZTEGIA



Alderdietan dute konfiantza gutxien

Alderdi politikoek hondo jo dute. Gazteen artean behintzat haiek dira konfiantza gutxien merezi duten erakundeak, Poliziak eta Guardia Zibilak berak baino gutxiago. Beste muturrean, komunikabideak, udalak eta hezkuntza sistema daude. Ixura denez, Nafarroako gazteak dezente fidatzen dira horiekin. Gazteek aurreiritzi ugari dute oraindik, eta ez dituzte aukide gisa onartzen ez alkoholikoak, ez drogazaleak, ezta ijitoak ere. Europako Batasuna, berriz, urrutiko gauza da gehienentzat: hamar gaztetik seirentzat ez du deus esan nahi, eta hiruk bakarrik sentitzen dute nolabaiteko atxikimendua. Gutxi gora-behera hauek dira Nafarroako gazteen artean egindako inkestak eskaini dituen ondorio edo emaitza nagusiak. Deigarriena, lehenengo kolpean behintzat, nafar gazteek alderdi politikoengan duten konfiantza eskasa izan daiteke.

ere egiten. Sollik adin eta zonalde jakin batzuetako gazteentzat da arazo nagusietakoa; Iru'errian eta Sakana aldean, 16 urtetik 19 urtera bitarteko gazteak, horiei bai, zuzenean eragiten die indarkeriak edo, hobeki esanda, kale istiluen inguruko gora-beherek. Izan ere, kale istiluekin eta sabotajeekin zerikusia dutelakoan atxilotzen dituzten gazte gehienak Iru'errikoak dira, 16-20 urte ingurukoak.

Gazteen joera politikoari erreparatu gero, jarrera epelekoek osatzen dute multzo handiena: % 41ek zentrokoak direla diote. Hala ere, beren burua ezkertiarretzat dutenak eta ezker-muturrekoak direla diotenak batuz gero, gehiago dira. Eskuindarrak oso gutxi dira haien aldean, eta eskuin muturrekoak % 1 besterik ez.

Hauteskundeak iristen direnean, erditsiak joaten dira botoa ematera. Beste erdiek paso egiten dute, edo gaztegiak dira bozkatzeko.

Erligio kontutan, hamarretik zazpi katolikoak dira, gurasoak bezala, baina haiek baino gutxiago joan ohi dira mezetara. Ehun gaztetik zortzik ateoak direla diote, eta hamasek agnostikoak.

Nafarroa aitzindari izan da intsumisioan. Iru'eko espetxetik dozenaka gazte pasatu dira soldadutzari uko egiteagatik, eta horrek izan du eraginik herrialdeko gazteengan. Hala, hamarretik zortzik soldadutzaren aurka daudela diote, eta hamarretik sei intsumisioaren alde agertzen dira.

Sexu harremanetan Nafarroako gazteak ez dabilta bereziki aurreratuak. Gehienek ontzat jotzen dituzte ezkontza aurreko sexu harremanak, baina inguruko herrialdeetako gazteek baino beranduago izaten dute lehen esperientzia.

Sexu harreman hutsa, bestelako loturarik gabekoa, bi gaztetik batek bakarrik onartzen du. Gehienak sexuen arteko berdintasunaren eta harreman homosexualen alde, eta heriotza zigorraren eta indarkeria politikoaren kontra daude.

Nafarroako gazteentzat, beste herrialdeetakoentzat bezala, taberna da bigarren etxea. Orduak eta orduak ematen dituzte tabernetan, bestelako elkarteetan eta gaztetxeetan baino askoz gehiago. Aisialdian gehienak, hamarretik zazpi, adiskideekin egoten dira. Tabernetatik aparte, kirolak, irakurketa, irrata eta telebista dira gazteen zaletasun nagusiak.

Hamarretik zazpi egunkariak leituko ohitura dute, baina batek ez du prentsa begiratu ere egiten. Gazteen artean ere *Diario de Navarra* da gehien irakurtzen den egunkaria (% 86), alde handiz gainera. Gainontzekoak urruti samar gelditzen dira: % 29k *Diario de Noticias* irakurtzen dute, % 17k *As, Marca* edo bestelako kirol egunkariak, % 16k *Egin* eta % 10ek *El Pais*. Telebisio katerik gogokoena *TVE1* dute, *Antena3*, *Tele5* eta *ETB*ren aurretik. X

* ◆ **Enkarni Genua** ◆ Antzerkigilea

«Idazlea naiz testua behar dudalako»

Enkarni Genua donostiarra irabazi du Nafarroako Antzeki Eskolak (NAE) Iru'eko Udalaren babespean antolatutako Haurrentzako Antzerki Testuen Lehiaketa, Gerta daiteke izenburuko lanarekin. Ez da Txontxongilo taldeko kideak idatzi duen lehen antzerki obra, bai, ordea, lehiaketa batean aurkeztu duen lehenengoa. Horregatik, ezustekoa izan da Enkarni Genuarentzat irabaztea, eta oso pozik dago.

Eduarne Elizondo / Iru'ea

ORAIN DELA 26 urte sartu zen Enkarni Genua antzerkigintzaren munduan, txontxongiloen eskutik. Senarrarekin batera Txontxongilo taldea osatu zuen orduan, eta, geroztik, Euskal Herriko plaza guztietan antzeztu ditu idatzitako ipuinak. Azkenarekin, gainera, saria eskuratu du donostiarra.

■ **Lehen aldiz parte hartu eta irabazi. Ez da lorpen txarra, gero.**

Harrirituta geratu naiz eta horregatik hartu dut izugarriko poza. Antzerki munduan urte pila bat daramat, aurten 26.a beteko dut, eta antzerki testu asko idatzi dut, baina beti Txontxongilo taldeak antzezteko. Hasieran, batez ere, taldeko kideon artean egin behar genuen dena, hau da, gidioa idatzi, papiak egin, eskematokia margotu, musika asmatu, eta abar. Nik beti testuak idatzi ditut, baina beti guk antzezteko. Lehiaketa batean parte hartzen dudan lehen aldia da.

■ **Eta hainbeste urteren buruan, zergatik animatu zara orain?**

Txontxongilo taldearekin asko joaten naiz ni Nafarroara, Erriberatik hasita Baztaneraino, eta Nafarroako jende asko ezagutzen dut. Aurten semeak, Manu



Enkarni Genua irabazi du NAEK antolatutako antzerki testuen lehiaketa.

JAGOBA MANTEROLA

Gomezek, Iru'eko Udalaren lehiaketako bigarren saria irabazi du olerkigintzan, eta sari banaketara joan nintzen. Han izan nuen lehiaketaren berri, eta lagunek animatuta parte hartzea erabaki nuen. Uztaila osoa eman nuen testua idazten.

■ **Gerta daiteke du izena. Zernolako istorioa kontatzen du?**

Antzerki testu bat asmatzeko edozein gai izan daiteke interesgarria, orain dela urte asko gertatutakoak, gure herriko kondairak, fantasiako ipuinak, edozein. Baina gure inguruan ere, inspirazio iturri agortezina dugu, gure eskolan, etxean, eta abar, eta antzerki lan hau osatzeko, ez naiz oso urrutira joan. Alboan nituen 10-12 urte bitarteko hiru neska-mutil hartu ditut protago-

nista. Neska-mutil arruntak dira, eta haiet esker, ohiko istorio batzuk agertzen ditu antzeztan, egunero gertatzen diren istorioak. Teloia altxatzen denean etxeko gela bat ikusten da eta hor daude Maider eta Gorka, makina bat prestatzen. Makina berezia da, Maiderren uestez makina horren eta irudimenaren bidez gerta daitekeen edozer gauza ikusi ahal izanen dutelako. Eta hala da, istorio arruntak ikusten dituzte Maiderrek, Koldok eta Gorkak, baina begirada kritiko batekin. Gaur egungo istorioak dira, antzerkiak ere helburu hori bete behar duela uste baitut, hau da: ingurua begiratu begirada zorrotz eta ironiko batekin. Gure ingurunea aztertzeo ohitura hartu behar dugu, baita haurrek ere.

■ **Fantasiako ipuinak alde batera uzteko garaia da, orduan?**

Uste dut gehiegi jo dugula fantasiaren mundura, baita nik ere. Sorginak, lamiak eta beste auke-

ratu ditugu testuetako protagoinista. Hori asko joratu dugu. Baina zer gertatzen zaie gaur egungo haurrei? Iturri agortezina dugu hor. Ni txontxongiloekin eskoletara asko joaten naiz eta ikusten dut antzerkia baztertuta dagoela. Eta nik uste dut antzerkia jolas eta bide izugarri ona dela gure burua eta ingurua hobeto ezagutzeko, gutaz farre egiteko, guri gertatzen zaiguna aztertzeo, eztabaidatzeko eta kritikatzeko. Gaur egungo antzerkia bide ona da horretarako. Gerta daiteke, adibidez, lehiaketarako idatzi dut baina buruan eskolak nituen, eta uste dut oso testu baliagarria dela eskoletan antzezteko, eskoletan antzerki testu hori jolasteko erabil daitekeela, eredutzat hartu.

■ **26 urte daramazu antzerkigintzaren munduan, antzezten eta idazten. Zer nahiago duzu?**

Antzeztea, zalantzarik gabe. Ni idazlea naiz txontxongiloen bidez nire ipuinak kontatzeko testu

bat behar dudalako, eta artisaua naiz txontxongilok nik neuk egin behar ditudalako. Gaur egun gauzak aldatzen ari dira zorionez, baina orain dela 26 urte guk egiten genuen dena. Nik ez dut egunero idazten. Taldeak erabakitzen duenean ipuin berri bat plazaratu behar dugula, pentsatzen hasten naiz, eta behar dudanean idazten dut. Baina ni, batez ere, txontxongilolaria naiz.

■ **Zer dute txontxongiloez zu hainbeste liluratzeko?**

Komunikazio bide izugarri ona dira. Txontxongiloekin 200 edo 300 haurren aurrean jarri eta lortzen duzu ia sinezetina dena. Ikusten duzanean bakarrik konturatzen zara. Oso giro ederra sortzen da, eta uste dut hori dela gehien gustatzen zaidana: haurrekin komunikatzea. Eta haurrekin komunikatzeko biderik onena dira txontxongilok. Antzeztu ditudan ipuinak argitaratu izan ditut, baina ez da gauza bera. X

soslaiia

Enkarni Genua donostiarra da NAEK antolatutako aurtengo Haurrentzako Antzerki Testuen Lehiaketako irabazlea. Lehen aldiz parte hartu badu ere, esperientzia ez zaio falta, orain dela 26 urte sartu baitzen antzerkigintzaren munduan.

Manolo Gomez senarrarekin batera Txontxongilo taldea osatu zuen, seme-alaben ikastolako jaialdi batean parte hartu eta gero. «Jendeak aurrera segitzeko esan zigun eta halaxe egin genuen, gaur arte», azaldu digu.

Txontxongilok egin eta haurren aurrean mugitu ez ezik, antzerki testu asko eta askoren egilea da Enkarni Genua.

Errekamari, Ipurtagi edo Altxor bat patrikan dira haietako batzuk. Liburuak ez ezik, diskoak ere plazaratu ditu egindako ipulnekin.

BEKARIO!

Zaldi Eroa

